BATZAR NAGUSIAK - JUNTAS GENERALES

# GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAKO LEGELARI NAGUSI ETA LEGELARI LANPOSTUAK HORNITZEKO LEHIAKETAREN DEIALDIA ETA OINARRIAK.

**Lehenengo oinarria.- Xedea.**

1. Oinarri hauen xedea da Gipuzkoako Batzar Nagusietako zerbitzu juridikoetako bi lanpostu, funtzionarioentzat gordetakoak, behin betiko betetzeko lehiaketa espezifikorako deialdia arautzea. Lanpostu horien ezaugarri eta eginkizun nagusiak I. eranskinean daude jasota.

2. Lehiaketa espezifiko honetan merezimenduak eta lanpostuak behar bezala betetzeko trebetasun espezifikoak baloratuko dira.

**Bigarren oinarria.- Parte hartzeko betekizunak eta baldintza orokorrak.**

1. Lehiaketan parte hartu ahal izango dute, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lanpostuen zerrendan ezarritakoaren arabera, Eusko Legebiltzarreko, Eusko Jaurlaritzako, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako eta Foru Aldundietako karrerako funtzionarioek, baldin eta, deialdiaren iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean, beren lanpostua A taldekoa den eta Zuzenbideko lizentziatura edo gradua izatea badu baldintzatzat. Halaber, 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izan beharko dute.
2. Deialdian parte hartu ahal izango dute zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan eta lege honetan aurreikusitako eszedentzia-egoeretan dauden funtzionarioek, bai eta

# CONVOCATORIA Y BASES DEL CONCURSO PARA LA PROVISIÓN DE LOS PUESTOS DE LETRADA/O MAYOR Y LETRADA/O DE LAS JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA.

**Base primera.- Objeto.**

1. Las presentes bases tienen por objeto regular la convocatoria de concursos específico para la provisión definitiva de dos puestos de trabajo de los servicios jurídicos de las Juntas Generales de Gipuzkoa reservados a personal funcionario. Las características y funciones principales de los citados puestos se recogen en el Anexo I.

2. En este concurso específico se valorarán los méritos y las destrezas específicas para desempeñar adecuadamente los puestos de trabajo.

**Base segunda.- Requisitos y condiciones generales de participación.**

1. Podrán tomar parte en el concurso, según dispone la Relación de Puestos de Trabajo de las Juntas Generales de Gipuzkoa, las personas funcionarias de carrera del Parlamento Vasco, del Gobierno Vasco, de las Juntas Generales y de las Diputaciones Forales de Álava/Araba, Bizkaia y Gipuzkoa que, en la fecha de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco, ocupen puestos de trabajo del grupo A con requisito de titulación de licenciatura o grado de Derecho. Además, deberán tener acreditado el perfil lingüístico 4.
2. Podrá participar en el proceso el personal funcionario que se halle en servicio activo, servicios especiales y en las situaciones de excedencia previstas en la ley, así como en

beste administrazio publiko batzuetan zerbitzuan daudenek eta funtziogabetze ez-irmoa dutenek ere, baldin eta egoera horietan egon behar zuten denbora bete badute.

las situaciones de servicio en otras administraciones públicas y en situación de suspensión de funciones no firme, siempre que haya cumplido el tiempo de permanencia establecido para tales situaciones.

3. Lehiaketa bidez lanpostua lortu duten funtzionarioek ezin izango dute lehiaketa honetan parte hartu bi urte igaro ez badira lanpostuaren jabetza hartu zutenetik eskabidea aurkeztu arte. Nolanahi ere, denbora-muga hori ez da aplikatuko funtzionarioek lanposturako adskripzioa galduz gero lanpostutik mugiarazi dituztelako edo lanpostua ezabatu delako.

3. El personal funcionario que hubiera obtenido un puesto mediante concurso no podrá tomar parte en este si no han transcurrido dos años desde la toma de posesión del puesto de trabajo hasta la presentación de la solicitud. Dicho límite temporal no será aplicable cuando el personal funcionario hubiera perdido la adscripción al puesto de trabajo en virtud de remoción o por la supresión del puesto de trabajo.

4. Era berean, ezingo dute lehiaketan parte hartu abenduaren 1eako Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legean ezarritako baztertze-kausaren batean dauden funtzionarioek.

4. Tampoco podrán participar en el concurso las personas funcionarias que incurran en alguna causa de exclusión establecida en la ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco de empleo público

5. Parte hartzeko betekizunak betetzen jarraitu beharko da esleitutako lanpostuak jabetzan hartu arte.

5. Para tomar posesión del puesto adjudicado, se deberá mantener el cumplimiento de los requisitos de participación hasta ese momento.

6. Bi lanpostuetarako hautapen-prozedura bakarra izango da, eta, beraz, eskabide bakarra aurkeztuko da.

6. El procedimiento de selección para los dos puestos de trabajo será único y, por tanto, se presentará una sola solicitud.

**Hirugarren oinarria.- Parte hartzeko eskabideak**

**Base tercera.- Solicitudes de participación**

1. Parte hartzeko eskabideak deialdia eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, eta deialdiaren

1. Las solicitudes de participación podrán presentarse a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria y sus bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y hasta un

iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita gehienez ere 15 egun balioduneko epean.

2. Ondorio horietarako, ez dira egun baliodunntzat hartuko larunbatak, igandeak eta erakundearen egoitza dagoen udalerrian, hau da, Donostian, jaiegun izendatutakoak.

3. Deialdian parte hartzeko eskabidea helbide elektroniko honetara bidali ahal izango da, digitalki sinatuta: legelarilehiaketa@bngipuzkoa.eus; edo, bestela, pertsonalki Batzar Nagusien erregistroan entregatu liteke (erregistroari buruzko informazioa II. eranskinean dago). Eskabidea Batzar Nagusietako lehendakariari zuzenduko zaio.

4. Eskabidearekin batera, merezimenduak baloratzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu beharko da. Era berean, lanpostuak betetzeko eskatzen diren betekizun espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuak adierazi eta, hala badagokio, aurkeztuko dira.

5. Eskabidea aurkeztu ondoren, eskaera aurkeztu izanaren agiria jasoko du langileak, eskabidean adierazitako helbide elektronikoan. Eskabidea pertsonalki aurkeztu duenak, horren kopia zigilatua jasoko du.

6. Lanpostuak betetzeko organo teknikoak, prozesuan zehar, jatorrizko dokumentuak eska ditzake; bai eta, zalantzarik izanez gero, merezimenduak behar bezala baloratzeko eta/edo beharkizunak betetzen direla

plazo máximo de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

2. A estos efectos, no se computarán como días hábiles los sábados, los domingos y los declarados festivos en la ciudad de San Sebastián, donde se encuentra la sede de la institución.

3. La solicitud para participar en la convocatoria se podrá enviar, con firma digital, a la siguiente dirección de correo electrónico: legelarilehiaketa@bngipuzkoa.eus; o podrá entregarse personalmente en el registro de las Juntas Generales (la información sobre dicho registro figura en el Anexo II). La solicitud se dirigirá al presidente de las Juntas Generales.

4. Junto con la solicitud deberá aportarse la documentación que sea precisa para la valoración de los méritos. Asimismo, se indicarán y presentarán, en su caso, los documentos que acrediten cumplir los requisitos específicos exigidos para la provisión de los puestos.

5. Tras presentar la solicitud, quien la haya enviado mediante email recibirá en la dirección de correo electrónico que haya indicado en la solicitud un acuse de presentación de la misma. Quien la haya entregado personalmente recibirá una copia sellada de la solicitud.

6. El Órgano Técnico de Provisión se reserva la posibilidad de solicitar durante el proceso la documentación original, así como, en casos de duda, cualquier documentación complementaria que considere necesaria

egiaztatzeko beharrezko jotzen duen beste edozein dokumentu osagarri ere.

7. Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mahaiak, bere kabuz edo lanpostuak betetzeko organo teknikoko lehendakariak proposatuta, parte-hartzaileek egin dituzten oker edo faltsukeriak jakinarazi beharko dizkie eskumendun organo eskudunei, dagozkien ondorioetarako.

8. Merezimenduak eta, hala badagokio, lanpostuak betetzeko betekizun espezifikoak honela egiaztatu ahal izango dira:

   a) Beste erakunde edo administrazio publikoetan egindako lana:

   Beste erakunde eta administrazio publiko batzuetan egindako lana organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri horretan, honako alderdi hauek jasoko dira: lanpostuen zerrendaren araberako lanpostuaren izena eta ezaugarriak (gutxienez, sailkapen-taldea eta titulazioa), lanpostuaren eginkizun eta zeregin nagusienak, lan-harremana, lan egindako aldia eta lan egindako aldi horretako egoera administratiboa.

   Beste erakunde eta administrazio publiko batzuetako antzinatasuna emandako zerbitzuen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

   b) Titulu akademikoak, masterrak eta graduondokoak:

   Horretarako eskumena duen arduradunak emandako diplomen edo agirien bidez egiaztatuko dira titulu horiek, eta berariaz jaso beharko da zenbat ordu edo

para la correcta valoración de los méritos o el cumplimiento de los requisitos.

7. La Mesa de las Juntas Generales de Gipuzkoa, por sí o a propuesta del presidente del Órgano Técnico de Provisión, deberá dar cuenta a los órganos competentes de las inexactitudes o falsedades en que hubieran podido incurrir los/as participantes, a los efectos procedentes.

8. La acreditación de los méritos y, en su caso, de los requisitos específicos para la provisión de los puestos se podrá realizar de la siguiente forma:

   a) Trabajo desempeñado en otras instituciones y administraciones públicas:

   El trabajo realizado en otras instituciones y administraciones públicas se acreditará mediante certificado del órgano competente en el que se hagan constar los siguientes extremos: denominación y características del puesto desempeñado según la relación de puestos de trabajo (al menos, el grupo de clasificación y la titulación), funciones y tareas principales del puesto, vínculo laboral, periodo trabajado y situación administrativa durante el mismo.

   La antigüedad en otras instituciones y administraciones públicas se acreditará mediante el certificado de servicios prestados.

   b) Títulos académicos, másteres y postgrados:

   Estos títulos serán acreditados mediante los diplomas o documentos expedidos por la persona responsable que tenga competencia para ello, debiendo quedar

kreditukoak diren, bai eta zer programa edo irakasgai egin diren ere.

constancia expresa del número de horas o créditos correspondientes, así como de los correspondientes programas o materias cursadas.

Titulu akademikoak, master eta graduondokoen iraupena kreditutan bakarrik adierazita badago, eta bestelako zehaztapenik ez badago, kreditu bakoitzeko hamar orduko balioa emango da. ECTS (european credit transfer system) kreditutan adierazita badago, eta bestelako zehaztapenik ez badago, hogeita bost ordu emango dira kreditu bakoitzeko.

Cuando la duración de títulos académicos, másteres y postgrados viniera expresada únicamente en créditos y no constara otra especificación, se valorará a razón de diez horas por crédito. Si se indican créditos ECTS (european credit transfer system) y no constara otra especificación, se valorarán a razón de veinticinco horas por crédito.

Ez dira baloratuko ordu edo kreditu kopurua berariaz adierazita ez duten diplomen bidez egiaztatutako unibertsitateko titulu propio, master eta graduondokoak.

No se valorarán aquellos títulos propios de universidades, másteres y postgrados en cuyos diplomas no aparezca de forma expresa el número de horas o créditos.

c) Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak.

c) Cursos de formación y perfeccionamiento:

Erakunde antolatzaileak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira ikastarook, eta adierazi beharko dute parte hartzailearen asistentzia, aprobetxamendua edo berak emanak direla, eta baita ere zein den ikastaroaren xedea, programa eta ordu kopurua.

Los cursos se acreditarán mediante el correspondiente certificado de la entidad organizadora en el que conste la asistencia, aprovechamiento o impartición del o de la participante, y en el que figure el objeto del curso, el programa y su duración en horas.

Ikastaroaren iraupena kreditutan bakarrik adierazita badago, eta bestelako zehaztapenik ez badago, kreditu bakoitzeko hamar orduko balioa emango da. ECTS kreditutan adierazita badago, eta bestelako zehaztapenik ez badago, hogeita bost ordu emango dira kreditu bakoitzeko.

Cuando la duración del curso viniera expresada únicamente en créditos y si no constara otra especificación, se valorará el curso a razón de diez horas por crédito. Si se indican los créditos ECTS y no consta otra especificación, se valorarán a razón de veinticinco horas por crédito.

Ez dira baloratuko ordu edo kreditu kopurua espresuki adierazia ez duten ziurtagirien bidez egiaztatutako ikastaroak.

9. Ez dira baloratuko adierazitako moduan alegatu edo egiaztatu ez diren merezimenduak.

10. Merezimenduak eta parte hartzeko betekizunak baloratzeko erreferentziatzat deialdiaren oinarrien iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren eguna hartuko da.

No se valorarán aquellos cursos en cuyas certificaciones no aparezca de forma expresa el número de horas o créditos.

9. No serán objeto de valoración los méritos no alegados o no acreditados en la forma indicada.

10. Los méritos y los requisitos de participación se valorarán con referencia a la fecha de la publicación del anuncio de las bases de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Laugarren oinarria.- Parte-hartzaileak onartzea.**

1. Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaituta, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mahaiak onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda onesteko erabakia hartuko du, eta 5 egun balioduneko epea emango du baztertzea eragin duten akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko edo zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.
2. Erabakia Batzar Nagusien webgunean argitaratuko da. Behin-behineko zerrenda horretan, parte-hartzaileen izena eta bi abizenak agertuko dira, eta, hala badagokio, onartua ez izateko arrazoia.
3. Akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko, eta erreklamazioak aurkezteko, hirugarren oinarriko hirugarren atalak zehazten dituen bideetako bat erabiliz aurkeztu ahal izango dira.

**Base cuarta.- Admisión de participantes.**

1. Expirado el plazo de presentación de solicitudes de participación, la Mesa de las Juntas Generales de Gipuzkoa adoptará un acuerdo aprobando la lista provisional de participantes admitidos/as y excluidos/as, y concederá un plazo de 5 días hábiles para la subsanación de defectos u omisiones que hubieran motivado la exclusión, o para plantear reclamaciones contra las listas.
2. El acuerdo será publicado en la web de las Juntas Generales. En dicha lista provisional constará el nombre y dos apellidos de las y los participantes y, en su caso, la causa de la no admisión.
3. La subsanación de defectos u omisiones, así como la presentación de reclamaciones se realizará mediante alguna de las dos vías señaladas en el apartado tercero de la base 3.

4. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrendatzat joko da automatikoki. Aldiz, erreklamaziorik izanez gero, Mahaiak beste erabaki bat hartuko du, erreklamazioak baietsi edo ezesteko eta behin betiko zerrenda onesteko. Behin betiko zerrenda hori behin-behineko zerrendarako adierazitako moduan argitaratuko da.

5. Behin betiko zerrendaren aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Mahaiari, hilabeteko epean, Gipuzkoako Batzar Nagusien webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoa aurkezteak ez du hautaketa-prozedura etengo.

6. Behin betiko zerrendatik kanpo geratu direnek probak kautelazko izaeraz egin ahal izango dituzte, betiere baztertu izanaren aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela egiaztatzen badute eta proba egunerako errekurtsoa ebatzi ez bada.

4. La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjeran reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en un nuevo acuerdo de la Mesa por la que se apruebe la lista definitiva, que se hará pública en la forma indicada para la lista provisional.

5. Contra la lista definitiva cabrá interponer recurso de reposición ante la Mesa en el plazo de un mes a contar a partir del día siguiente a su publicación en la web de las Juntas Generales de Gipuzkoa. La presentación del recurso no suspenderá el curso del procedimiento de selección.

6. Los y las participantes excluidos en las listas definitivas podrán presentarse a la realización de las pruebas con carácter cautelar, siempre y cuando acrediten haber presentado el oportuno recurso contra su exclusión, y si para dicha fecha no se hubiera resuelto el mismo.

**Bosgarren oinarria.- Lanpostuak betetzeko Organo Teknikoa**

1. Lanpostuak betetzeko Organo Teknikoa arduratuko da, lehen aipatutako 11/2022 Legean xedatutakoaren arabera, ezagutza-probak ebaluatzeaz eta merezimenduak baloratzeaz. Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mahaiak izendatutako pertsona hauek izango dira organo hori osatuko dutenak:

   - Lehendakaria: Iñigo Lamarca, Gipuzkoako Batzar Nagusietako legelari nagusia.

**Base quinta.- El Órgano Técnico de Provisión**

1. El Órgano Técnico de Provisión (OTP) será, de conformidad con lo dispuesto en la anteriormente citada ley 11/2022, el encargado de evaluar las pruebas de conocimiento y de valorar los méritos. Estará compuesto por las siguientes personas:

   - Presidente: Iñigo Lamarca, letrado mayor de las Juntas Generales de Gipuzkoa.

Ordezkoa: Ainhoa Sagarduy, Arabako Batzar Nagusietako legelaria.

- Idazkaria: María Yeregui, Gipuzkoako Foru Aldundiko defentsa eta laguntza juridikoko zerbitzuburua.

  Ordezkoa: Aitor Leturiondo, Gipuzkoako Foru Aldundiko funtzio publikoko zerbitzuburua.

- Organoko kidea: Montserrat Auzmendi, Eusko Legebiltzarreko legelaria.

  Ordezkoa: Zelai Nikolas, Eusko Legebiltzarreko legelaria.

- Organoko kidea: Pilar Martínez, Bizkaiko Batzar Nagusietako legelari nagusia.

  Ordezkoa: Itziar Lizeaga, Bizkaiko Batzar Nagusietako legelaria.

Idazkariak, kideak zein ordezkoak, hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango du.

Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitate-botoa izango du.

2. Lanpostuak betetzeko organo teknikoak independentzia, diskrezionalitate tekniko eta objektibotasun osoz jardungo du, eta bere proposamenak lotesleak izango dira.
3. Lanpostuak betetzeko organo teknikoak badu ahalmenik sor litezkeen zalantzak argitzeko eta deialdia behar bezala burutu dadin behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian.
4. Organo teknikoaren jarduketek izango duten diskrezionalitate teknikoa eragotzi gabe, haren ebazpenek arrazoituak izan behar dute, araudia eta deialdiaren oinarriak betez.

Suplente: Ainhoa Sagarduy, letrada de las Juntas Generales de Álava.

- Secretaria: María Yeregui, jefa de servicio de defensa y asistencia jurídica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

  Suplente: Aitor Leturiondo, jefe de servicio de función pública de la Diputación Foral de Gipuzkoa

- Vocal: Montserrat Auzmendi, letrada del Parlamento Vasco.

  Suplente: Zelai Nikolas, letrada del Parlamento Vasco.

- Vocal: Pilar Martínez, letrada mayor de las Juntas Generales de Bizkaia.

  Suplente: Itziar Lizeaga, letrada de las Juntas Generales de Bizkaia.

La secretaria, o el secretario en caso de suplencia, actuará con voz y voto.

El presidente dispondrá de voto de calidad en caso de empate.

2. El Órgano Técnico de Provisión actuará con plena independencia, discrecionalidad técnica y objetividad, y sus propuestas serán vinculantes.
3. El OTP queda facultado para resolver las dudas que se presenten y tomar los acuerdos necesarios para el buen desarrollo del concurso en todo lo no previsto en estas bases.
4. Sin perjuicio de la discrecionalidad técnica de que gozan las actuaciones del OTP, sus resoluciones deberán ser motivadas en cumplimiento de la normativa y de las bases de la convocatoria.

**Seigarren oinarria.- Argitalpenak, komunikazioak eta jakinarazpenak.**

1. Deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta horiei buruzko iragarki bat Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean. Halaber, oinarriak Gipuzkoako Batzar Nagusien Aldizkari Ofizialean eta bere Web-orrian ere argitaratuko dira.
2. Deialdi honetatik sortzen diren komunikazioak eta jakinarazpenak Gipuzkoako Batzar Nagusien web-orrian argitaratuko dira.
3. Web-orri horretan kontsultatu ahal izango dira onartuen eta baztertuen zerrendak, deialdiak eta probak egiteko datak , horien emaitzak eta lortutako kalifikazioak, emaitzen araberako hautagaien arteko sailkapena, esleipen proposamena, eta abar.

**Base sexta.- Publicación, comunicaciones y notificaciones.**

1. Las bases de la convocatoria se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y un anuncio de la misma en el Boletín Oficial del País Vasco. También se publicarán las bases en el Boletín Oficial de las Juntas Generales y en la Web de la institución.
2. Las comunicaciones y notificaciones derivadas de esta convocatoria se efectuarán por medio de su publicación en la web de las Juntas Generales de Gipuzkoa.
3. En dicha web se podrán consultar las listas de admitidos/as y excluidos/as, las convocatorias y fechas de realización de las pruebas, sus resultados y calificaciones, las clasificaciones de las personas aspirantes según los resultados, y la propuesta de adjudicación, etc.

**Zazpigarren oinarria.- Proba**

1. Izangaien trebetasunak edo gaitasuna baloratzeko proba bat egingo da, ariketa praktiko bat eginez. Ariketa horretan, balizko kasuak planteatuko dira eta galdera zehatzei erantzun beharko zaie. Batzar Nagusien Araudiari buruzkoak izango dira, baina, horiez gain, deialdi honen xede diren lanpostuen beste funtzioekin zerikusia duten galderak ere izan litzake.
2. Lanpostuak hornitzeko organo teknikoa arduratuko da ariketa hori prestatzeaz eta ebaluatzeaz. Legezko testuak erabili ahal izatea erabaki lezake.

**Base séptima.- Prueba**

1. La prueba para valorar las destrezas o capacitación de las y los aspirantes consistirá en la realización de un ejercicio práctico, en el que se plantearán supuestos de hecho y se deberá contestar a preguntas concretas. Versará sobre el Reglamento de la Cámara, pero, además de sobre esa materia, podrá contener preguntas relacionadas con las demás funciones de los puestos de trabajo objeto de esta convocatoria.
2. El Órgano Técnico de Provisión preparará el ejercicio y lo evaluará. Podrá acordar el uso de textos legales.

3. Ariketa egiteko deialdia, non eguna eta ordua, eta hura egiteko lekua zehaztuko baitira, Batzar Nagusien webgunean argitaratuko da.
4. Ariketa 0tik 30era puntuatuko da.
5. Ebaluazioen emaitzak eta dagozkien kalifikazioak Batzar Nagusien webgunean argitaratuko dira.
6. 3 egun baliodun eko epean aurkaratu ahal izango dira. Aurkaratzerik balego, organo teknikoak erabaki bat hartu beharko luke aurkaratzeak ebazteko, eta ebazpen hori Batzar Nagusien webgunean argitaratuko litzateke.

**Zortzigarren oinarria.- Merezimenduen balorazioa.**

1.-Legelari nagusi edo legelari lanpostuan egindako lana, izaera parlamentarioko erakunde batean.

- Atal hau gehienez ere 30 punturekin baloratuko da.
- Hilabete oso bakoitzeko 0,3 puntu emango dira, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu den egunera arte.

2.-Izaera juridikoko lanak egin dituzten lanpostuetan egindako lana.

- Eskuratu nahi den lanpostuaren talde eta eskala bereko lanpostuetan egindako lana baloratuko da, baldin eta lanpostu horietarako betekizuna bada Zuzenbideko lizentziatura edo gradua izatea.

3. La convocatoria para la realización del ejercicio, con el día y la hora, y el lugar para hacerlo, se hará a través de la web de las Juntas Generales.
4. El ejercicio se puntuará de 0 a 30 puntos.
5. El resultado de las evaluaciones, con las calificaciones correspondientes, se publicará en la web de las Juntas Generales.
6. Podrá impugnarse en un plazo de 3 días hábiles. La resolución del OTP que resuelva las impugnaciones se publicará, asimismo en la citada web.

**Base octava.- Valoración de méritos.**

1.-Trabajo desempeñado en un puesto de letrada/o mayor o de letrada/o en una institución de naturaleza parlamentaria.

- Este apartado se valorará hasta un máximo de 30 puntos.
- Se valorará el trabajo a razón de 0,3 puntos por mes completo hasta el día de la publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.-Trabajo desempeñado en un puesto con funciones y tareas de carácter jurídico.

- Se valorará el trabajo desempeñado en puestos de trabajo pertenecientes al grupo A para el que fuese requisito la licenciatura o grado en Derecho.

- Atal hau gehienez ere 15 punturekin baloratuko da.
- Hilabete oso bakoitzeko 0,15 puntu emango dira, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu den egunera arte.

3.-Titulu akademikoak

- Atal hau gehienez ere 15 punturekin baloratuko da.
- Titulazio akademiko ofizialak baloratuko dira (lizentziaturak eta graduak izan ezik), baita unibertsitateen titulu propioak eta unibertsitateek, unibertsitate-eskolek edo horiekin hitzarmenik duten entitateek emandako masterrak eta graduondokoak ere, baldin eta zuzenean eta espezifikoki eragiten badute eskatutako lanpostuaren zereginak betetzeko. Horretarako, titulazioaren edukiak barnean izan beharko ditu I. eranskinean zehazten diren lanpostuen funtzioekin bat egiten duten gaiak.
- Balorazioa:
  - 100-249 ordu: puntu 1 titulu bakoitzeko.
  - 250-499 ordu: 2 puntu titulu bakoitzeko
  - 500 ordu edo gehiago: 3 puntu titulu bakoitzeko.

4.-Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak.

- Atal hau gehienez ere 15 punturekin baloratuko da
- Bete nahi den lanpostuaren eginkizunekin edo eginkizun horiek betetzeko behar diren trebetasunekin zerikusia duten gaien

- Este apartado se valorará hasta un máximo de 15 puntos.
- Se valorará el trabajo a razón de 0,15 puntos por mes completo hasta el día de la publicación del anuncio de la convocatoria en el BOPV.

3.-Títulos académicos.

- Este apartado se valorará hasta un máximo de 15 puntos.
- Se valorarán las titulaciones académicas oficiales (excluidas las licenciaturas y grados), así como los títulos propios de universidades, másteres y postgrados impartidos por universidades, escuelas universitarias o entidades con convenio con estas, siempre y cuando redunden directa y específicamente en el desempeño de las funciones de los puestos. Para ello, el objeto de la titulación deberá contener materias que coincidan con funciones de los puestos de trabajo especificados en el anexo I
- Valoración:
  - Entre 100 y 249 horas: 1 puntos por título.
  - Entre 250 y 499 horas: 2 puntos por título.
  - 500 horas o más: 3 puntos por título.

4.-Cursos de formación y perfeccionamiento

- Este apartado se valorará hasta un máximo de 15 puntos
- Se valorará la asistencia, aprovechamiento o impartición de cursos de formación y perfeccionamiento en

inguruko prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak egin, aprobetxatu edo eman izana baloratuko da, betiere ikastaroak 30 ordukoak edo gehiagokoak badira eta deialdiaren iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu aurreko hamar urteetan egindakoak badira.

- Ikastaroak administrazio publikoek, unibertsitateek edo administrazio publikoko eskolek antolatuak edo homologatuak izan beharko dira, edo, bestela, ospe handiko erakundeek emanak, baldin eta bertaratzearen, aprobetxamenduaren edo ikastaroa eman izanaren ziurtagiria erakunde horiek emana bada.
- Balorazioa

4.1) Egindako ikastaroak:

- 30 eta 49 ordu bitarteko ikastaroak: puntu 1 ikastaro bakoitzeko.
- 50 eta 74 ordu bitarteko ikastaroak: 2 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 75 eta 99 ordu bitarteko ikastaroak: 2,5 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 100 ordu edo gehiagoko ikastaroak: 3 puntu ikastaro bakoitzeko.

4.2) Emandako ikastaroak:

- 30 eta 49 ordu bitarteko ikastaroak: 2,5 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 50 eta 74 ordu bitarteko ikastaroak: 3 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 75 eta 99 ordu bitarteko ikastaroak: 3,5 puntu ikastaro bakoitzeko.

materias relacionadas con las funciones propias de los puestos de trabajo o con destrezas requeridas para su desempeño, siempre y cuando los cursos sean de duración igual o superior a 30 horas y se hubieran realizado en los diez años anteriores a la fecha de publicación del anuncio de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

- Los cursos deberán haber sido organizados u homologados por administraciones públicas, universidades o escuelas de administración pública, o bien haber sido impartidos por instituciones de reconocido prestigio, siempre que el certificado de asistencia, aprovechamiento o impartición estuviera expedido por las mismas.
- Valoración

4.1) Cursos recibidos:

- Cursos de duración entre 30 y 49 horas: 1 punto por curso
- Cursos de duración entre 50 y 74 horas: 2 puntos por curso.
- Cursos de duración entre 75 y 99 horas: 2,5 puntos por curso.
- Cursos de duración igual o superior a 100 horas: 3 puntos por curso.

4.2) Cursos impartidos:

- Cursos de duración entre 30 y 49 horas: 2,5 puntos por curso
- Cursos de duración entre 50 y 74 horas: 3 puntos por curso.
- Cursos de duración entre 75 y 99 horas: 3,5 puntos por curso.

- 100 ordu edo gehiagoko ikastaroak: 4 puntu ikastaro bakoitzeko.

5.-Antzinatasuna.

- Herri administrazioen zerbitzura emandako antzinatasuna gehienez 8 punturekin baloratuko da (hileko 0,02 puntu).
- Ez dira zenbatuko oinarri honetako "a" eta "b" ataletan alegatutako lanpostuetan emandako zerbitzuak.
- Karrerako funtzionario-izaera eskuratu aurretik emandako zerbitzuak baloratuko dira atal honetan, bai eta izaera hori lortu ondoren emandakoak ere.

6.-Proban eta merezimenduen balorazioan lortutako emaitzen batuketaren kopurua gutxienez 15 puntukoa izan beharko da.

**Bederatzigarren oinarria.- Behin-behineko esleipen-proposamena**

1. Behin-behineko esleipen-proposamena lanpostuak betetzeko organo teknikoak egingo du, izangai bakoitzaren probaren emaitza eta merezimenduen balorazioa batu ondoren egingo den sailkapenaren arabera.
2. Sailkapen horretako lehen pertsona legelari nagusiaren lanposturako proposatuko da, eta bigarrena legelari lanposturako.
3. Berdinketarik gertatuz gero, honako irizpide hauek erabiliko dira berdinketa desegiteko:

- Cursos de duración igual o superior a 100 horas: 4 puntos por curso.

5.-Antigüedad.

- La antigüedad al servicio de distintas administraciones públicas se valorará hasta un máximo 8 puntos, a razón de 0,02 puntos por mes.
- No se computarán los servicios prestados en los puestos de trabajo que se hayan alegado en los apartados “a” y “b de esta base.
- Se incluirán en este apartado también los servicios reconocidos que se hubieran prestado con anterioridad a la adquisición de la condición de funcionario/a de carrera, además de los prestados después.

6.-La suma de las puntuaciones obtenidas en la prueba y en la valoración de los méritos deberá ser de al menos 15 puntos.

**Base novena.- Propuesta provisional de adjudicación.**

1. La propuesta provisional de adjudicación la hará el OTP, de conformidad con la clasificación que se haga entre las personas aspirantes, sumando los resultados de la prueba y de la valoración de los méritos.
2. La primera persona de esa clasificación será propuesta para el puesto de letrada/o mayor, y la segunda para el puesto de letrada/o.
3. En el supuesto de empate se acudirá para dirimirlo a los criterios siguientes:

a. Zortzigarren oinarriko "a" atalean puntuaziorik onena lortu duena.

b. Berdinketak jarraitzen badu, proban puntuaziorik onena lortu duena (zazpigarren oinarria)

4. Zerrenda, emaitzekin eta sailkapenarekin, Batzar Nagusien webgunean argitaratuko da.

5. 3 egun balioduneko epea emango da aurkaratzeko.

6. Aurkaratzeei buruzko organo teknikoaren erabakia Batzar Nagusien webgunean argitaratuko da.

**Hamargarren oinarria.- Atzera egitea eta uko egitea.**

1. Lehiakideek, beren borondatez, deialdi osoan parte hartzeari uko egin ahal izango diote, betiere behin-behineko esleipenaren ondoren emandako erreklamazio-epea amaitu baino lehen. Ez da onartuko atzera egitea partzialki, hau da, lanpostuetako bati dagokionez bakarrik.

2. Esleitutako lanpostuei ezin izango zaie uko egin eta, beraz, esleipendunek lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko dute, eta, halakorik badute, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko dute; obligazio honetatik salbuetsita egongo dira lanpostuaz jabetzeko epea bukatu baino lehen lehiaketa publikoaren bidez beste destino bat eskuratu dutenak, geroztikako ezgaitasuna eratorri zaienak, zerbitzu aktiboa ez den beste egoera batera igaro direnak edo, behar bezala justifikatutako eta deialdia egin duen

a. Prevalecerá quien haya obtenido mejor puntuación en el apartado “a” de la base octava.

b. Si persistiese el empate, prevalecerá quien haya conseguido mejor puntuación en la prueba (base séptima)

4. La relación con la clasificación y los resultados se publicará en la web de las Juntas Generales

5. Se habilitará un plazo de 3 días hábiles para impugnar.

6. El acuerdo del OTP resolviendo la impugnación se publicará en la web de las Juntas Generales.

**Base décima.- Desistimiento y renuncia.**

1. Las y los concursantes, voluntariamente, podrán desistir de su participación en la totalidad de la convocatoria, siempre que sea con anterioridad a la finalización del plazo de reclamaciones concedido tras la adjudicación provisional. No se admitirá el desistimiento parcial respecto de uno de los puestos.

2. Los puestos de trabajo adjudicados serán irrenunciables y los/as adjudicatarios/as deberán tomar posesión en el puesto obtenido en concurso perdiendo la titularidad, en su caso, del puesto anterior salvo que, antes de finalizar el plazo de toma de posesión, se hubiera obtenido otro destino mediante convocatoria pública, por incapacidad sobrevenida, por pasar a una situación diferente a la de servicio activo, o por otras causas excepcionales debidamente justificadas apreciadas por el órgano convocante.

organoak baietsitako salbuespenezko bestelako kausaren batean sartzen direnak.

**Hamaikagarren oinarria.- Ebazpena.**

1. Behin-behineko esleipen-proposamenaren aurkako erreklamazioak ebatzi ondoren, deitutako lanpostuak behin betiko esleitzeko proposamena egingo du organo teknikoak. Proposamen hori Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mahaiak onetsiko du, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.
2. Deialdiko lanpostuak bete gabe uzteko arrazoi bakarrak hauek izango dira: izangairik ez egotea, deialdian eskatutako betekizunak ez betetzea, edo eskatzen den gutxieneko puntuazioa inork ez lortzea.

**Base undécima.- Resolución.**

1. Resueltas, en su caso, las reclamaciones contra la propuesta provisional de adjudicación, el OTP elevará propuesta de adjudicación definitiva de los puestos convocados, que será aprobada por la Mesa de las Juntas Generales de Gipuzkoa y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el Boletín Oficial del País Vasco.
2. Los puestos convocados solo podrán ser declarados desiertos bien por falta de aspirantes, por no reunir los requisitos exigidos en la convocatoria, o bien por no haber alcanzado ninguno/a la puntuación mínima exigida.

**Hamabigarren oinarria.- Aurkaratzeak**

1. Oinarri hauen aurka, eta deialditik eratorrita administrazio bidea amaitzen duten administrazioko egintzen aurka, berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek oinarriak onetsi edo egintzak eman dituen organoaren aurrean, haien jakinarazpen edo argitalpen egunaren biharamunetik hilabete bateko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.
2. Halaber, interesdunek egintza horien aurka zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian,

**Base duodécima.- Impugnaciones**

1. Las presentes bases, y los actos administrativos que se deriven de la convocatoria y que pongan fin a la vía administrativa podrán, potestativamente, ser recurridos en reposición ante el órgano que los hubiera dictado en el plazo de un mes a contar a partir del día siguiente al de su notificación o publicación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
2. Asimismo, los/as interesados/as podrán interponer directamente contra tales actos recurso contencioso administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco,

jakinarazi edo argitaratu diren egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación o publicación, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

3. Hornidurarako Organo Teknikoaren izapide-egintzen aurka, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluaren 1. apartatuan aipatzen diren kasuetan, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mahaiari, egintzak jakinarazi edo argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, lege horren 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

3. Contra los actos de trámite del OTP, en los supuestos a que se refiere el artículo 112, apartado 1, de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, los/as interesados/as podrán interponer recurso de alzada ante la Mesa de las Juntas Generales de Gipuzkoa en el plazo de un mes a contar a partir del día siguiente al de su notificación o publicación, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 121 y siguientes de dicha ley.

**Hamahirugarren oinarria.- Lanpostuaz jabetzea.**

1. Lanpostuen esleipena egiten duen Batzar Nagusietako Mahaiaren ebazpenak izendatzen dituen pertsonek lanpostuaz jabetzea aurtengo uztailaren 13tik aurrera egingo da, beheko ataletan adierazten dena kontuan izanik data bat ezarriko delarik.

2. Izendatutako bi pertsonek lanpostua duten administrazio edo erakundeei jakinaraziko zaie ebazpena, administrazio edo erakunde horietan duten lanpostua uzteari buruzko erabakiak har ditzaten.

3. Zerbitzu aktiboan egon arren baimen, opor edota lanean egotea eragozten duen bestelako edozein egoeratan dauden funtzionarioen jabetza hartzea egoera horiek amaitu arte atzeratuko da. Salbuespenez, eta

**Base decimotercera.- Toma de posesión.**

1. Las personas designadas en la resolución de la Mesa de las Juntas Generales que lleve a cabo la adjudicación de los puestos de trabajo tomarán posesión a partir del día 13 de julio del año en curso, en la fecha que se determine en función de lo dispuesto en los apartados siguientes.

2. La resolución se notificará a la administración o institución en la que ocupasen puesto las dos personas nombradas, a efectos de que proceda a adoptar las decisiones pertinentes en relación con su cese en el mismo.

3. La toma de posesión se diferirá a la fecha de la finalización de los permisos, licencias, vacaciones, o cualquier otra circunstancia en la que se encuentre el personal funcionario que, manteniendo la situación

behar bezala arrazoitutako arrazoi justifikatuengatik, organo eskudunak egoera horiek etetea erabaki ahal izango du.

de servicio activo, impida la prestación efectiva de sus servicios. Excepcionalmente, por causas justificadas y debidamente motivadas, el órgano competente podrá acordar suspender el disfrute de los mismos.

**I. ERANSKINA.- LANPOSTUAK.**

- **Legelari nagusia.**
  - Taldea: A.1. Titulazioa: Zuzenbideko lizentziatura edo gradua. 4. Hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data amaituta.
  - Maila: 30. Urteko soldata gordina (2023ko kopurua): 92.157,32 €
  - Dedikazioa: esklusiboa.
  - Urteko lan-orduak: 1.685. Hiru egunez, lanaldi jarraitua, eta beste bietan lanaldi etena, baina zerbitzuaren beharrei lan-ordutegiaz kanpo erantzuteko guztiz eskuragarri egoteko baldintzarekin.
  - Lan-lekua: Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitza, Donostian.

- **Legelaria.**
  - Taldea: A.1. Titulazioa: Zuzenbideko lizentziatura edo gradua. 4. Hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-data amaituta.
  - Maila: 28. Urteko soldata gordina (2023ko kopurua): 85.082,42 €
  - Dedikazioa: esklusiboa.

**ANEXO I.- PUESTOS DE TRABAJO.**

- **Letrada/o mayor.**
  - Grupo A.1. Titulación: Licenciatura o grado de Derecho. Perfil lingüístico 4, con fecha de preceptividad vencida.
  - Nivel 30. Salario bruto anual (importe de 2023): 92.157,32 €
  - Régimen de dedicación: exclusiva.
  - Número de horas laborales anuales: 1.685. Tres jornadas continuas y dos partidas a la semana, pero plena disponibilidad para atender, fuera del horario laboral establecido, las necesidades del servicio.
  - Lugar de trabajo: sede de las Juntas Generales de Gipuzkoa en San Sebastián

- **Letrada/o.**
  - Grupo A.1. Titulación: Licenciatura o grado de Derecho. Perfil lingüístico 4, con fecha de preceptividad vencida.
  - Nivel 28. Salario bruto anual (importe de 2023): 85.082,42 €
  - Régimen de dedicación: exclusiva.

- Urteko lan-orduak: 1.685. Hiru egunez, lanaldi jarraitua, eta beste bietan lanaldi etena, baina zerbitzuaren beharrei lan-ordutegiaz kanpo erantzuteko guztiz eskuragarri egoteko baldintzarekin.
- Lan-lekua: Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitza, Donostian.

- Número de horas laborales anuales: 1.685. Tres jornadas continuas y dos partidas a la semana, pero plena disponibilidad para atender, fuera del horario laboral establecido, las necesidades del servicio.
- Lugar de trabajo: sede de las Juntas Generales de Gipuzkoa en San Sebastián

- **Bi lanpostuen eginkizun nagusiak.** Bi lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioek honako zeregin hauek egiteko gaikuntza izan behar dute:

  - Lehendakaritzari, Mahaiari, Bozeramaileen Batzordeari, Osoko Bilkurari, Batzorde Iraunkorrari, batzordeei, ponentziei, batzarkide-taldeei eta batzarkideei laguntzea.
  - Organoen bilerak: lehendakaritzari deialdian laguntzea eta bileretan egotea, baita akten ardura hartzea ere, administrazio-zerbitzuen laguntzarekin.
  - Mahaiari legelari-laguntza ematea administrazio-errekurtsoetan, eta abokatu-legelari gisa jardutea errekurtso judizialetan.
  - Araudiaren erreforma.
  - Txosten eta ohar juridikoak.
  - Erabakiak ziurtatzea.
  - Batzarkideen jardueren eta ondarearen adierazpenak. Bateraezintasunen Batzordeari laguntzea irizpena egiteko.

- **Funciones principales de los dos puestos de trabajo.** Las personas funcionarias que ocupen los dos puestos deben tener la capacitación para realizar las siguientes tareas:

  - Asistencia a la Presidencia, la Mesa, la Junta de Portavoces, el Pleno, la Comisión Permanente, las Comisiones, las Ponencias, los Grupos Junteros y las personas junteras
  - Reuniones de los órganos: asistencia a la presidencia en la convocatoria y estar presente en las reuniones, así como responsabilizarse, con la ayuda de los servicios administrativos, de las actas.
  - Asistencia letrada a la Mesa en recursos administrativos y ejercer de abogado-letrado en los recursos judiciales.
  - Reforma del Reglamento
  - Informes y notas jurídicas.
  - Certificación de acuerdos.
  - Declaraciones de actividades y patrimonio personas junteras. Asistir a

- Kontratazioa: prestaketa-, adjudikazio- eta exekuzio-prozesuez arduratzea, dagozkion proposamenak Mahaiari aurkeztuz, erakundeko zerbitzu tekniko eta administratiboen laguntzarekin. Kontratazio Mahaiko kide izatea.

- Langileria: funtzionarioen buru izatea, eta Mahaiari proposamenak egitea, legez ezarritako prozedurei jarraituz, lanpostu hutsak betetzeko, sortu berriak direlako edo hutsik deklaratu direlako. Baita bitarteko funtzionarioak ekartzeko ere, ordezkapenetarako. Opor- eta lizentzia-eskaeren inguruan informatzea, indarrean dagoen araudiaren eta zerbitzu-beharren arabera. Mahaiari urteko lan-egutegiak proposatzea.

- Laguntzak eta dirulaguntzak ematea.

- Datuen babesa; hizkuntza-normalizazioa; emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; laneko jazarpenaren, sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloak; salaketen kanala; gardentasuna. Gai horietan, eta legeriaren arabera Batzar Nagusiek bete behar dituzten beste gai batzuetan, lege aplikagarrietan ezarritakoa betetzeaz arduratzea, eta dagozkion proposamenak egitea

la Comisión de Incompatibilidades para hacer el dictamen.

- Contratación: encargarse de los procesos de preparación, adjudicación y ejecución, elevando las propuestas correspondientes a la Mesa, con la ayuda de los servicios técnicos y administrativos de la institución. Formar parte de la Mesa de Contratación.

- Personal: jefatura del personal funcionario, realización de propuestas a la Mesa para, siguiendo los procedimientos legalmente establecidos, cubrir las plazas vacantes porque sean de nueva creación o porque se hayan declarado vacantes. También las interinidades por sustitución. Informar, en función de la normativa vigente y las necesidades de servicio, sobre las peticiones de vacaciones y licencias. Proponer a la Mesa los calendarios laborales anuales.

- Concesión de ayudas y subvenciones.

- Protección de datos; normalización lingüística; igualdad entre mujeres y hombres; protocolos de acoso laboral, acoso sexual y acoso por razón de sexo; canal de denuncias; transparencia. En estas materias, y otras que según la legislación tuvieran que cumplir las Juntas Generales, encargarse de que se cumpla lo establecido por las leyes aplicables, formulando las propuestas pertinentes a la Mesa, con la ayuda de

Mahaiari, zerbitzu tekniko eta administratiboen laguntzarekin.

- Legelari nagusiaren lanpostuaren berezitasunak:
  - Ganberako funtzionarioen eta zerbitzuen eta idazkaritza nagusiaren zuzendaritza. Mahaiari aurkezten zaizkion lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamenen gaineko erantzukizuna.
  - Zereginak zerbitzu juridikoetako funtzionarioen artean banatzea, Mahaiarekin bat etorriz.
  - Lehendakariari, Mahaiari, Bozeramaileen Batzordeari, Batzorde Iraunkorrari eta Osoko Bilkurari laguntzeko erantzukizuna. Osoko Bilkura Ganberako legelariarekin banatuko da, eta lanpostu hori betetzen duen pertsonak eginkizun horiek ere bete ahal izango ditu legelari nagusia ez dagoenean edo justifikatutako arrazoiak daudenean.
  - Batzar Nagusien aurrekontua onesteko eta gauzatzeko faseetan lege- eta prozedura-alderdiak betetzen direla zaintzea.
  - Ganberaren Araudiak zehazten dituen berariazko eginkizunak.

los servicios técnicos y administrativos.

- Especificidades del puesto de letrada/o mayor:
  - Dirección del personal funcionario y de los servicios de la Cámara, y de la secretaría general. Responsabilidad sobre las propuestas de modificaciones de la Relación de Puestos de Trabajo que se eleven a la Mesa.
  - Distribuir las tareas entre las personas funcionarias de los servicios jurídicos, de acuerdo con la Mesa.
  - Responsabilidad sobre la asistencia a la presidencia, la Mesa, la Junta de Portavoces, la Comisión Permanente y el Pleno, repartiendo este último con el letrado o letrada de la Cámara, y sin perjuicio de que la persona que ocupe este último puesto realice también esas tareas en ausencia de la letrada o letrado mayor o por razones justificadas.
  - Velar por el cumplimiento de los aspectos legales y procedimentales en las fases de aprobación y ejecución del Presupuesto de las Juntas Generales.
  - Las funciones específicas que concreta el Reglamento de la Cámara

**II. ERANSKINA. GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEI BURUZKO INFRORMAZIO BALIAGARRIA.**

- Batzar Nagusien helbidea hau da: Donostiako Miramon pasealekuko 164.
- Gipuzkoako Batzar Nagusietako Erregistroa honako ordutegi honetan egongo da eskuragarri:
  - Goizez, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara
  - Arratsaldez, astelehenetik ostegunera, 16:00etatik 17:30etara
- Harremanetarako:
  - idazkaritza@bngipuzkoa.eus
  - Telefonoa: 943 244900

**ANEXO II.- INFORMACIÓN ÚTIL SOBRE LAS JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA**

- La dirección de las Juntas Generales es la siguiente: Paseo Miramón, 164. San Sebastián
- El Registro de las Juntas Generales de Gipuzkoa estará disponible en el siguiente horario:
  - Por las mañanas, de lunes a viernes, de 9:00 a 14:00 horas
  - Por las tardes, de lunes a jueves, de 16:00 a 17:30 horas
- Contacto:
  - idazkaritza@bngipuzkoa.eus
  - Teléfono: 943 244900